



CARITASEN KANPAINA

2016.eko APIRILAREN 10a

PAZKO ALDIKO III. DOMEKEA – (C)

«**LANA: bidezkoa, duina,
gizaldekua, egokia...**»

“**LANAREN ATZEAN, LANPOSTUA
BAINO ASKOZ GEHIAGO DAGO**”

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✠ Lagungarriok liturgiako talde sustatzailearen esku itzi.
- ✠ Aldez aurretik prestatuta dagozanez, kontuan izan kanpaina egingo dan egunetan Jaungoikoaren herriaren otoitzean gogoratu beharreko gertaerak izan daitezakala.
- ✠ Liturgi lagungarriak batera bialtzen diran materialak irakurtea egokia da, kanpainaren nondik norakoak ezagutzeko eta homilian esango dana argitzeko.

HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Pazko aldiak berezkoa dauan poztasuna bizi dogu, Jesus Berbiztua bidelagun dogula eta Berak indarbarritu egiten gaituala jakinda. Berak, eguneroko ohikeria eta adore faltan, gizon eta emakume barri eta berbiztu lez, “sareak botaz” eta mundu zuzenaren alde lan eginez bizi-tzea proposatzen deusku.

Berak, Eukaristian, gure fedea sendotu egiten dau eta gure bizitzak gehien behar gaituenentzako janari bihurtzera bultzatzen gaitu.

Gaur, gainera, Caritasen jardunaldia ospatzen dogu. Lana aurkitzeak beti ez dau ziurtatzen behartasunetik urtetea. “Lana” hitzaren azpian askoz gehiago dago. Ezinbestekoa da lan duina, gizalegezkoa, integratzailea, probetxuzkoa, inklusiboa izatea. Guzti honek hobekuntza dakarsku maila pertsonalean eta sozialean. Caritasen holako lanaren alde dihardue eta 2014an 1.438 emakumeri eta 588 gizoni lagundu deusie.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari...

CAMPAÑA DE CÁRITAS

10 de ABRIL de 2016

III DOMINGO DE PASCUA - (C)

«**TRABAJO: justo, digno, in-
tegrador, constructivo...**»

“**DETRÁS DE UN ‘TRABAJO’ HAY
MUCHO MÁS QUE UN EMPLEO**”

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✠ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✠ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✠ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es buena para comprender el sentido de la Campaña e iluminar lo que se diga en la homilía.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hermanas y hermanos: Seguimos en ese ambiente de alegría que es tan propio del tiempo pascual, conscientes de que Jesús Resucitado sigue caminando a nuestro lado y renovando nuestras fuerzas.

Es Él quien, en la rutina y en los desánimos de cada día, nos propone vivir como personas nuevas y resucitadas, “echando las redes” y trabajando por un mundo de justicia. Es Él quien, en la eucaristía, refuerza nuestra fe y nos impulsa a convertir nuestras vidas en alimento para la gente que más nos necesita.

Hoy es la ‘Jornada de Caritas’. Encontrar trabajo no siempre supone salir de la pobreza. Detrás de la palabra ‘trabajo’ hay mucho más. Ha de ser un trabajo digno, decente, integrador, constructivo, inclusivo. Todo eso que nos mejora personal y socialmente. Caritas se empeña en un trabajo así y durante el año 2014 ha acompañado a 1438 mujeres y 577 hombres.

Iniciamos la celebración unidos en el canto...





SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari...

ABADEAREN AGURRA

Maitasun eta bakearen Jaungoikoa, zuekin.

UR BEDEINKATUAZ TXIPRIZTINDU

Kristinau alkarteko kide bihurtu ginan eguna, hau da gure bateo-eguna gogoratuz eta barrituz prestatuko gara Eukaristian parte hartzeko. Ur bedeinkatuaz txipriztinduko gaitue.

Uraz txipriztindu, bateo-kanturen bat abesten dan bitartean. Gero honan amaitu:

Jaungoiko ahalguztidunak pekatutik garbitu gaizala eta, Eukaristia honen bitartez, bere Erreinuko otorduan parte hartzeko duin egin gaizala. Amen.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

(Eg 5, 27b-32. 40b-41)

Jaungoikoak Jesus berbiztu egin dau. Hauxe da Eleizeak apostoluen sasoiari hots egiten dauan fedea. Jazarpen eta mehatxuek ez dabe iragarpen hori isilduko.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (Ap 5,11-14)

Apokalipsiko profetak egundoko liturgia zerrutarra ikusten dau. Erdian Jesus dago, sakrifikatutako bildotsa.

OHARRA EBANJELIOARI (Jn 21, 1-19)

Berbiztuaren hirugarren agerpena entzungo dogu san Joanen ebanjelioan. Mundu honetako itsasoan, sarritan ageriko emaitza barik, lanean jo eta ke ari dan Eleiza gogora ekarten da.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Otoitzean bat eginda, aurkeztu deioguzan Jaungoiko Aitari gure munduaren beharrizak:

CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidas en el canto

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Dios del amor y de la paz, esté con todos vosotros.

RITO DE LA ASPERSIÓN

Nos preparamos para esta eucaristía recordando y renovando el día en el que empezamos a formar parte de la comunidad cristiana: el día de nuestro bautismo. Recibimos la aspersión del agua bendecida.

Se hace la aspersión mientras se canta un canto bautismal. Al final, el sacerdote dice:

Que Dios todopoderoso nos purifique del pecado y, por la celebración de esta eucaristía, nos haga dignos de participar del banquete de su Reino. Amén.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

(Hch 5, 27B-32. 40B-41)

Jesús ha sido resucitado por Dios. Esta es la fe que la Iglesia ya proclama en los tiempos apostólicos. Las persecuciones y amenazas no la podrán hacer callar.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (Ap 5,11-14)

En la segunda lectura, el vidente del Apocalipsis contempla una grandiosa liturgia celeste. El centro es Jesús, el Cordero degollado.

MONICIÓN AL EVANGELIO (Jn 21, 1-19)

Escuchamos la tercera aparición del Resucitado en el evangelio de san Juan. En ella se ve una evocación de la Iglesia pascual que brega en el mar de este mundo, con frecuencia sin resultados aparentes.

ORACIÓN UNIVERSAL

Unidos en la oración, presentemos a Dios Padre las necesidades de nuestro mundo:

- Eleizearen alde. Eten barik iragarri dai-ela Barri Ona gizon eta emakume guztiei.
Eskatu deiogun Jaunari.
- Kristinauon alde. Jesusen jarraitzaileon bizimodua benetako eta sinisgarria izan daitela eta beste batzuk Jaunagaz bat egitera erakarri daizala.
Eskatu deiogun Jaunari.
- Langabezian aurkitzen diranen edo lan duinik ez dabenen alde. Caritasen eta gizarteratzea eta lan duina ahalbideratzeko bideak bilatzen diharduenen eskutik, gizatasuna eta etorkizuna emongo deuskuen lanaren alde borrokatu daigula.
Eskatu deiogun Jaunari.
- Gure kristinau alkartearen alde. Gure kristinau alkarteak (Pastoral Barrutiak), Berbiztuaganako fedaren indarraz, eten barik barritu daizan bere jarrerak.
Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Jauna, zure Semearen heriotzagaz adiskidetze eta bakearen oinarriak jarri dozuz; entzun zure herriaren otoitza eta gizadi barri, zure maitasunak baketutako gizadi egin gaizuz.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritasek laguntza eskatzen deusku: denporea, dirua, alkartasuna... Gure aldetik apur bat jarriz, errazagoa izango da jenteari lan duina eskaintzea.

Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

- Por la Iglesia. Para que nunca deje de anunciar el Evangelio a todas las personas.
Roguemos al Señor.
- Por quienes seguimos a Jesucristo. Para que nuestro estilo de vida sea tan auténtico y creíble que anime a otros a dejarse encontrar por Dios.
Roguemos al Señor.
- Por quienes no tienen trabajo o no es digno, por Cáritas y quienes apuestan por generar nuevos espacios y formas de inclusión social y un empleo digno. Para que nos enseñen que tenemos que luchar para que el trabajo sea instancia de humanización y de futuro. *Roguemos al Señor.*
- Por nuestra comunidad cristiana, (por nuestra Unidad Pastoral). Para que, con la fuerza de la fe en el Resucitado, se renueve en sus actitudes y en sus estructuras.
Roguemos al Señor.

Señor Dios, que con la muerte de tu Hijo has puesto el fundamento de la reconciliación y de la paz; escucha la oración de tu pueblo y haz de nosotros signo de una humanidad nueva, pacificada por tu amor.

Por Jesucristo, nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Cáritas solicita nuestra colaboración ofreciendo tiempo, dinero, solidaridad... Podemos hacer posible el ofrecer un trabajo digno.

Muchas gracias por vuestra generosidad.



Papa Francisco
@Pontifex_es



Siguiendo

En los pobres vemos el rostro de Cristo que se hizo pobre por nosotros.



Papa Francisco
@Pontifex_es



Siguiendo

La Iglesia está llamada a hacerse cercana a todas las personas, comenzando por los más pobres y los que sufren.



Papa Francisco
@Pontifex_es



Siguiendo

¡Qué importante es el trabajo: para la dignidad humana, para formar una familia, para la paz!



Papa Francisco
@Pontifex_es



Siguiendo

Todos tenemos que luchar para que el trabajo sea una instancia de humanización y de futuro.





JAUNARTZE OSTEKO ISILUNEAN

“Jauna, gaur eskerrak emon gura deusuguz lanagaitik; makina bat ondasun eta onura dakarsku, gure gaitasunak garatzeko balio dau eta frutu ona emoteko talentuakaz.

Lanak heldutasuna jadesteko aukerea emoten deusku, geldotasunaren lozorrotik aldentzen gaitu eta dinamiko bihurtzen. Lanak sortzaile, solidario, eskuzabal izateko eta jaso dugun guztia emoteko aukerea eskaintzen deusku.

Jauna, zerbitzu lez eta on egiteko aukera lez hartu daigula lana.”

Frantzisko Aita Santua. “Laudato si” entziklika:

(127) «Gizon-emakumea da ekonomia-gizarte bizitzaren egilea, ardatza eta helburua» (...) Ezinbestekoa da «lana jadesteko helburua lehenetsia...»

(128) «Geure sorreratik gagoz lanera deituak. [...] Lana, beharrezkoa da, lur honetako gure bizitzaren zentzua da, heldutasuna jadesteko, giza garapenerako, norbere osotasunerako bidea».

Frantzisko Aita Santua. “Evangelii Gaudium” aholku-hitza:

(192) Baina gehiago nahi dugu oraindik, gure ametsak haratago doaz. Ez gara ari guztiei jantzia edo «itxurazko mantenua» bermatzeari buruz bakarrik, baizik eta izan dezatela «goraldia *ondasunik salbuetsi gabe*». Horrek berekin eskatzen du heziketa, osasunaren zaintza eskuragarri egitea eta bereziki lana; lan aske, sortzaile, parte-hartzaile eta solidarioan adierazten eta areagotzen baitu gizakiak bere bizitzako duintasuna. Lansari zuzenak, denon erabilerarako dauden beste ondasunak eskuragarri egiten ditu.

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

“Señor, hoy queremos darte gracias por el trabajo, fuente de grandes bienes y realizaciones, que permite desarrollar nuestras capacidades y dar buen fruto con los talentos.

El trabajo nos hace madurar, impide sumirnos en el sopor de la pasividad y nos vuelve dinámicos. El trabajo es el campo que se nos brinda para ser creativos, solidarios, generosos y para dar lo mucho que hemos recibido.

Haz, Señor, que tomemos el trabajo como un servicio y una oportunidad de hacer el bien.”

Papa Francisco. “Encíclica Laudato si”:

(127) «El hombre es el autor, el centro y el fin de toda la vida económico-social» (...) Es necesario que «se siga buscando como prioridad el objetivo del acceso al trabajo...»

(128) «Estamos llamados al trabajo desde nuestra creación. [...] El trabajo es una necesidad, parte del sentido de la vida en esta tierra, camino de maduración, de desarrollo humano y de realización personal».

Papa Francisco. “Encíclica Evangelii Gaudium”:

(192) Pero queremos más todavía, nuestro sueño vuela más alto. No hablamos sólo de asegurar a todos la comida, o un «decoroso sustento», sino de que tengan «prosperidad sin exceptuar bien alguno». Esto implica educación, acceso al cuidado de la salud y especialmente trabajo, porque en el trabajo libre, creativo, participativo y solidario, el ser humano expresa y acrecienta la dignidad de su vida. El salario justo permite el acceso adecuado a los demás bienes que están destinados al uso común.

